



Euz, Morkaiko!

BARREN

TOKIKOM



%25 DOAN
zure erosketa osoan
Deskontu-txartelekin lizulko diruz



abenduak
1
larunbata

*Deskontu-txartelen gehieneko zenbatekoa 150 € da, (gehienez 600 €-ko erosketa baten truke). Txartel bakoitzak gehienez 20 €-ko balioa izango du.

Kontuzkutu gainerako baldintak sartapenera abarritatu dazkizuten.



Hemen soilik

Hipermerkatua



UROLA - Urola auzoa, Basterretia Ind., z.g. (Azkoitia)

Supermerkatuak



Deba - Astillero, 3-5 (Deba)
Elgoibar - Maala, 1 (Elgoibar)
Santa Ana - Santa Ana, 24 (Elgoibar)

OPARITU IRRIBARRE BAT ZURE BURUARI,
KAFE BATEK BALIO DUENA BAINO DIRU GUTXIAGOAGATIK

INPLANTEEN TRATAMENDU OSOA
(INPLANTE+KOROA+ERRADIOLOGIA FROGA)
22,60€ HILABETEAN



**Finantziazioa: 1085 euro, 48 hilabeteetan ordaintzeko. Sustapena onartzea erakundeari dagokio.*



943 36 63 77
Lasarte-Elgoibar-Tolosa

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ
azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA 3



UDALETXEKO
ARKUPEETAN



Udaletxeko arkupeetan elkartu eta
Euskaraldia guretzat zer izan den kontatuko diogu elkarri,
txokolate beroa eskuan dugula.

Amaitzera goaz!

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Ez dok 300 tredezilioi eta bat

halatsu Mutriku (azken biak neguan). 11.000 dituzte Elgoibarrek eta Azkoitiak, 15.000 bueltan Azpeitiak eta Bergarak, 16.000 Ermuak. 22.000 Arrasatek, 23.000 Zarautzek (neguan), 27.000 Eibarrek, 29.000 Durangok. 60.000 Irunek, 100.000 Barakaldok. 190.000 Donostiak, 200.000 Iruñeak, 240.000 Gasteizek, 340.000 Bilbok (hor nonbait Islandiak!). 1,5 milioi Bartzelonak, 2 milioi Parisek (Paris zeri esaten diogun!). 3 milioi Euskal Herriak (eta Madrilek, hiriak). 5-6 milioi Norvegiak, Finlandiak, Danimarkak. 10 milioi Portugalek, 45 milioi Espainiak (jakina, jakina, denok barne). 60 milioi Italiak, 65

Frantziak edo Erresuma Batuak, 80 Alemaniak. 145 Errusiak, 325 Estatu Batuek, 740 Europa osoak, 1.400 Indiak nahiz Txinak (berdinketa teknikoak hamar urteren buruan). 7.000 milioi arima (?), gaur gaurkoz, munduan. 11.000 milioi mende amaierarako. Huskeriak. 7,5 trilioi harea ale munduko hondartzetan. 5.000 trilioi izar unibertso (behagarri)an. 3,7 kuatrilio atomo, ur litro batean (utikan izarrak!). 300 tredezilioi (3 bat eta 80 zero atzetik) partikula unibertso (behagarri)an, (fotoiak eta neutrinoak zenbatu gabe, otoi).

Eta hala ere unibertsoko espazio gehiena hutsik omen. Errak 300 tredezilioi eta bat. Ez dok 300 tredezilioi eta bat.

Ezagutzen duzue *Errak bat* kantu herrikoia? Ez Dok Amairu euskal musikari taldeari izena eman ziona, nik uste. Gure Jauna bera da bat etabar, etabar.

100 lagun ez dira txarrak Herriko Antzokian, ez 1.000 Astelena frontoian. 2.000 biztanle ditu gaur Mendarok, 4.000 Plaentxiak, 5.000 pasa Debak,

“Eta hala ere, unibertsoko espazio gehiena hutsik omen”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Lehenen Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALAK
KULTURAREN

LAGUNTZAILEAK:

MENDAROK
2001

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Eskerrak eman nahi dizkiot azaroaren 15ean Trenbide kalean aparkatuta neukan autoan ohar bat utzi zidan herritarrari. Ohar horri esker konpondu izan nuen arazoa. Mila esker.

L.A.

► OHARRA

Abenduko jai-zubia dela-eta, abenduaren 7an ez da BARRENik egongo, eta beraz, hurrengo alea, abenduaren 14an jasoko duzue.

BARREN



LAGUNAK
colchonaria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 · ELGOIBAR
www.textillagunak.com
943 744 457

QUERCUS NATURE LASTAIRA

100%ean material naturalez sortutako lastaira, guztiz ekologikoa, atsedeen betea hartzeko.

Proba itzazu etxe bereko kotoizko edredoi nordikoak, guztiz material naturalekin egina




Aurreko bost urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan.



"Elgoibar, garai gatazkatsu baten kronika" liburuak



Marrazkiak koadroetan



"Begiradaren heziketa" DVDak + liburuak



Ilerako xanpuak



"Guztiok izan beharko genuke feminista" liburuak



"Gaxuxaren klanion magikoa" ipuinak



Xaboiak



Kremak



Ezkur-txorizo iberikoak



"Hazi Hezi" ongizatearen gidak



Perfumeak



"Jolasen altxorra" DVDak



Euskaldunak Elgoibarren liburuak



Bitxiak



Hirugiharrek



Kamiseta, giltzatak eta liburu sortak



"Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako" liburuak



Mantak



Erlouak

... eta opari gehiago!

Elgoibarko Izarraren aldeko TONBOLA
Abenduak 24,
11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.000 erregalu baino gehiago...

Harremanetarako: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus edo 943 741 626

420.220 euro jarriko ditu Udalak Aita Agirre plaza berrurbanizatzeko

Aita Agirre plaza berrurbanizatzeko obren lizitazio prozesua hasi du Elgoibarko Udalak. Guztira, 420.220 euroko inbertsioa egingo du lan horiek gauzatzeko, eta ondo bidean, urtarilean hasiko dituzte obrak eta hiru hilabeteko epean bukatu. Aparkalekuak berrantolatuko dituzte, guztira 74 ibilgailurentzako lekuak sortuz, eta aisialdirako bi gune sortuko dituzte, tartean jolas-gune bat. Pedro Miguel Urruzuno kale hasieran, berriz, aparkalekuan libre dauden guneak zenbatzeko seinalizazioa jarriko dute, trafiko-ara-zaok saihesteko. Era berean, Udaletik gogorarazi dute abenduko jai-zubira arte itxita egongo dela Aita Agirre pareko aparkalekua, eraikinean egin behar dituzten obra batzuk tarteko. Planoa ikusteko: www.barren.eus.

Sebas Etxanizen egoera salatzen talde-argazkia atera dute Karakaten, Sarek deituta

Elgoibarko eta Soroluzeko Sarek antolatuta, hainbat ekintza egin dira asteon Sebas Etxaniz presoak etxean behar lukeela aldarrikatzeko. Argazki hau domekan Karakatera egin zuten martxakoa da. Kalegoen plazatik irten ziren elgoibartarrak mendira, eta han, Soroluzetik eta Elgoibartik joandako lagunek talde-argazkia atera zuten. Martitzenean, berriz, Etxanizen egoera legalari buruzko argibideak eman zituen Onintza Ostolaza abokatuak Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Egun horretan bertan 75 urte bete zituen Etxanizek. Villabonako kartzelan dute preso elgoibartarra, bigarren graduari, baina egoera horretan daudenei dagozkien onurak aplikatu gabe, Sarek salatu duenez. Gaur, elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, 19:00etan.



Indarkeria matxista salatu eta gizonen hildako emakumeak gogoratu dituzte Elgoibarren eta Mendaron, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean



Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen domekan, eta egoeraren larriaz ohartarazteko hainbat ekintza antolatu zituzten Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarren elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan eta jendetza handia batu zen. Ulka batukada feministakoek ere parte hartu zuten ekitaldian, eta ondoren, indarkeria matxistak hildako emakumeen izenak eskegi zituzten propio ekitaldirako sortutako arbolaren adarretan. Datu ofizialen arabera, 2003tik gaur arte, 972 emakume hil dituzte gizonen estatu espainiarrean. Mendaron ere gogoratu zituzten emakume guzti horiek. *Feminicio.net*en datuak erabili zituzten Mendaron. Datu horien arabera, indarkeria matxistak 88 emakume hil ditu aurten estatuan eta haien izenabizenak gogorarazi zituzten beste horrenbeste lagunek, frontoian egun osoz atondu zuten beilatokian. Bideoa ikusteko: www.barren.eus.

Azoka, Tio Teronen semeak taldearen ikuskizuna eta pilota partidak izango dira Mendaron, Kontzezio eguneko osagai nagusiak

Kontzezio eguna ospatuko dute Mendaron abenduaren 8an. Neguko jai gehienetan gertatzen den bezala, Mendaron ere azoka izango da egitarauko osagai nagusia. 9:30ean zabalduko dute azoka, frontoian, eta inguruko baserrietako barazki eta gainerrako jakiak dastatu eta erosteko aukera izango bertan. Ganaduak ere jaitsiko dituzte baserritarrek kalera, eta artisautan lanen postuak ere izango dira erakusgunean. 11:00etan, sagardo lehiaketa hasiko dute plazan, eta ondoren, 12:00etan, dantzaldia eskainiko dute herriko trikiti eskolako haur, gazte eta helduek. Azkeneko urteotako usadiari jarraituz, Izetaren idi-pareak gidatutako gurdian ibiltzeko aukera ere izango dute Mendarora gerturatzen direnek. Ondoren, 13:00etan, Tio Teronen semeak taldearen dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da Herriko Enparantzan. Ezagunak dira Mendaron Tio Teronen semeak, aurrez ere etorriak direlako, baina aurten, estreinatu berri duten ikuskizun berria ekarriko



dute: *Festamentua*. Dantzari kuadrilla xelebrea hileta batean bilduko da eta halakotan ikusten direnak antzeztuko dituzte, umore, dantza eta doinu eza-gunez lagunduta. Goiz parteko egitarauari sari banaketarekin emango zaio azkena.

Arratsalderako, berriz, pilota partidak antolatu dituzte. Gipuzkoako eta Bizkaiko emakume pilotariak desafioko jokatu dute 18:00etan. Eskuz binakako partida izango da, eta pilotariak

honako hauek izango dira: Miren Larreate eta Maider Mendizabal batetik, eta Leire Etxaniz eta Olatz Arrizabalaga bestetik. Ondoren, pilotari profesional izandakoak lehiatuko dira, Uriona eta Arrizabalaga bikotea Lizeaga eta Pascual II.aren kontra. Iluntzean Basatxerri saiheski errearen banatuko dute plazan eta Erromeria ere izango da Guri 5 erromeria taldearekin. Eguna bukatzeko ardua, berriz, Mendaroko DJ Pusek izango du.

KONTZEZIO EGYNEKO AZOKA

ABENDUAK 8
LARYNBATA









► MIGUEL ANGEL MONTES

COMETEL ENPRESAKO NAGUSIA

Lanbide Heziketako ikasketak amaitu eta makina erremintaren sektoreko hainbat eremutan lan egin ondoren, 1987an, Cometel enpresa sortu zuen Miguel Angel Montesek (Durango, 1958) aitaginarreba-ekin eta emaztearekin. Herrirako eta eskualderako egiten zuten lan hasieran, baina urteekin Espainiara eta Portugalera zabaldu zuten produkzioa. 2004an sektoreko liderra zen Cometel bi herrialde horietan, eta hiru urte geroago, Iberiar Penintsulatik kanpora hasi ziren lanean. 2007an Cometel Hego Ameriketara finkatu zen, eta filiala ireki zuen Queretaron (Mexiko). Urte berean, Cometel Recycling Solutions enpresa sortu zuten. Montesek Korta Saria jaso du aurten, bere lan ibilbideagatik.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola iritsi zinen Erreminta Makinaren sektorera?

Lanbide Heziketako ikasketak egin nituen, delineaizaile alorrean, eta gero Ingeniaritza Mekanikoa ikasten hasi nintzen, baina ez nuen bukatu. Tarte horretan lanean hasi nintzen, eta sektoreko hainbat enpresatan jardun nuen lanean sei urtez, Cometel enpresa sortu genuen arte.

◆ Noiz eta nola sortu zenuen Cometel enpresa?

1987an sortu genuen enpresa, Miren Perez emazteak, Jose Perez aitaginarrebak eta nik neuk. Aitaginarreba gizon ekintzailea zen eta Elgoibarko aktibitate industrial askotan ibilitakoa zen. Ordu hartan 60 bat urte izango zituen eta asko lagundu zigun emazteari eta biori enpresa sortzen. kontaktu asko zituen aitaginarrebak eta ezinbestekoa izan zen bere laguntza. 12 langilerentzako enpresa-proiektua prestatu genuen, eta SPRIren lokal batean hasi genuen ibilbidea, lbaitarte industrigunean. Hasiera batean Elgoibarrera, Debarbarrenera eta Gipuzkoara mugatu genuen gure egitekoa.

◆ Zertan espezializatu zen Cometel?

Erreminta makinenzako osagarriak diseinatzen eta fabrikatzen hasi ginen: karentua, babes teleskopikoak, txirbil ateragailuak eta olio, taladrina eta hozgarrientzat filtroak.

◆ Enpresa sortu eta urte gutxira, 1993an, erreminta makinaren sektorera krisialdi garrantzitsua iritsi zen. Nola egin zenioten aurre?

Krisialdi gogorra izan zen hura. Konturatu ginen sektorearekiko menpekotasun handiegia geneukala, eta saiatu ginen dibertsifikatzen eta hedatzen. Plangintza aldatu eta ekipoen amaierako erabiltzaileentzako produktu eta zerbitzuak ekoizten hasi ginen. Diseinatzen, fabrikatzen eta doikuntzak egiten hasi ginen, garraioko eta txirbil tratamenduetako instalazio osoetan, bereziki, automobilgintzaren sektorerako. Azken batean, proiektu osoak eskaintzen genizkien bezeroei, eta horretan jarraitzen dugu. Hasie-



“Egungo belaunaldia oso ondo prestatuta dago, baina ekintzailetasuna falta da”

ratik amaierara arteko instalazioak eskaintzen dizkiogu bezeroari, hornitzaileekin elkarlanean. Horrez gain, orain dela 10 urte Cometel Recycling Solutions enpresa sortu genuen, industriako hondakin guztiak nolabait berreskuratuz eta birziklatzeko.

◆ Noiz hasi zineten produkzioa atzerrira bideratzen?

Hasierako krisialdi hura pasatu zenean hainbat gauza aldatu genituen enpresan, eta beste hainbat aldaketen artean elkarlanari ekin genion. Elkarlan horretan hornitzaileak aurkitu genituen ordura

arte gure lan eremua zenetik kanpora, eta horrela hasi ginen hedatzen. Lehenengo Espainiara, Madril, Bartzelona, Valentzia eta Sevilla; gero Portugalera eta 2007an Ameriketara, Mexikora. Han daukagu enpresa filiala eta egonaldi luzeak egiten ditut han.

♦ **Esan daiteke, orduan, krisialdiak eboluzionatzera eraman zintuztela?**

Bai, krisi garaiak berritzera eta gauza berriak martxan jartzera behartzen zaitu. Krisialdi garaietan enpresa askok eboluzionatu egiten dute.

♦ **Cometel familia-enpresa da. Nola daramazue familian lan egitea?**

Emazteak eta biok 31 urte daramatzagu elkarrekin lan egiten, eta ondo moldatzen gara. Egia da askotan eramaten dugula lana etxera, eta hori da lanik zailena, etxeko bizitza eta lanekoa bereiztea, baina ikasi egiten da. Orain, alaba ere hemen dabil gurekin lanean. Ingeniaritza Industrialak ikasi zuen lehenengo, eta, gero, Enpresen Administrazioa ikasketak egin zituen. Master bat ere egin zuen, eta Madrilan jardun zuen hiru enpresa multinazionaletan. Unea iritsi zenean galdetu genion ea zein asmo zeukan gure enpresarekiko eta bazeukala interesa esan zigun. Niretzako sekulako poza izan zen alaba gurekin lanean hastea. Orain dela lau urte hasi zen hemen lanean, eta une honetan bera da zuzendaria. Ni, orain, alor komertzialaz arduratzen naiz. Semeak 21 urte ditu, eta Nazioarteko Merkataritza ikasketak egiten ari da. Poz handia emango lidake semea ere gurekin hastea lanean.

♦ **Komertzial arduraduna izanda, asko bidaiatzen duzu. Egondaldi luzeak egiten dituzu kanpoan?**

Bai, asko bidaiatzen dut. Niri asko gustatzen zait bezeroekin egotea eta beraien beharrak aurrez aurre entzutea. Bezeroek izugarri lagundu dituge Cometelen garapenean, bezeroei esker garatu eta handitu gara neurri batean. Gaur egun 45 langile gaude Cometelen, eta orain dela hamalau urtetik Albitxuriko industrigunean daukagu enpresa.

♦ **Adegik zure izena proposatu zuen Korta Sarietarako. Nola hartu zenuen izendapen hori?**

Sorpres handia izan zen niretzat. Adegik jakinarazi zidanean Korta Sarietarako hautagaitzarako izendatuko nindutela, hautagaitza horretarako merezimenduak zituzten beste pertsona asko zeudela esan nien. Nik ez dut uste beste munduko ezer egin dudarik. Azken batean lana besterik ez dut egin, ilusioz eta modu konstantean.

♦ **Azkenik Korta Sarietako bat zuretzat. Zer suposatzen dizu sari horrek?**

Poztasun eta ohore handia izan da niretzat Korta Saria jasotzea, eta aurrera jarraitzeko ilusio handia eman dit. Azken

batean pertsonaren baloreei emandako saria izan da, eta hori asko gustatu zait.

♦ **Nola definituko zenuke zure burua hitz gutxitan?**

Oso konstantea naiz. Helburu batzuk jartzea gustatzen zait, eta nire gabeziak zein diren jakinda, lan gehiago eta konstantzia handiagoarekin konpentsatzen saiatzen naiz.

♦ **2012tik AFMko kontseilarietako bat zara. Zein egoeratan dago une honetan sektorea? Egia da krisialditik irteten ari garela?**

Baietz dirudi, krisialdia gainditzen ari garela, baina une oro laino beltzak ageri zaizkigu eszenatokian. Orain hasi gara entzuten diesel motorea desagertzea doala eta horrek zalantza handiak sortu ditu automobilgintzaren sektorean. Alarma gorria piztu da sektorean. Nire ustez komunikabideetan zabaldu den mezua ez da oso egokia izan. Beste moduren batean zabaldu behar zen mezua.

♦ **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Adi egon behar dugu, eta aldaketetara moldatu beharko gara.

♦ **Zein aholku emango zenioke ikasketak amaitu eta lan munduan sartzean dagoen gazte bati?**

Ondo formatzeko eta erosotasunetik irteteko. Egungo belaraldia oso ondo prestatuta dago; ekintzailetasuna falta da. Gure garaian beste ikuspegi bat zegoen enpresak sortzerako orduan. Jende askok nahiago du besteentzako lan egin, norbere enpresa sortzea baino. Enpresa sortzeak arrisku handia dauka, burukomin asko ematen ditu, baina gehiago dira ematen dituen poztasunak. Nire kasuan behintzat askoz gehiago izan dira poztasunak, oztopoak baino. Ilusioz etortzen naiz egunero lanera, pozik. Lan ibilbidea amaitzean nagoen honetan, hasieran besteko ilusioa daukat.



Miguel Angel Montes Korta Saria jasotzeko ekitaldian, Iñigo Urkullu lehendakariarekin eta Arantza Tapia Industria sailburuarekin.

▶ KOLDO LIZARRALDE HISTORIALARI ETA IDAZLEA



“Elgoibarko kirolaren oinarria izan da Club Deportivo”

100 urte bete zituen iaz Club Deportivo Elgoibarrek, eta horren harira hainbat ekintza eta ospakizun egin zituzten urte osoan zehar. Azkena, mendeurrenari buruzko liburua izango da. Koldo Lizarralde Elberdin (Pasaia, 1950) historialari eta idazleari eskatu zioten klubaren historiari buruzko liburua idazteko, eta zailtasunak zailtasun, kaleratzeaz da lana. Abenduaren 11n aurkeztuko dute liburua, 20:00etan, Musika Eskolako Auditoriumean. Aurkezpen ekitaldian Ane Beitia Elgoibarko alkatea, Jon Basurto C.D. Elgoibarreko presidentea eta Joseba Etxeberria futbolari ohia izango dira, besteak beste, eta Garazi Ayestak gidatuko du saioa.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola etorri zitzazizun C.D. Elgoibarren liburua idazteko aukera?

Mendeurrenako antolakuntza taldeko kideak etorri zitzazizkidan liburu bat idazteko eskatuz. C.D. Elgoibarren ehun urteko historia liburu batean jaso nahi zutela esan zidaten, eta bide batez, antolakuntza taldean bertan sartzeko gonbitea ere egin zidaten.

◆ Nondik hasi zinen liburua idazteko informazioa biltzen?

Elkarrizketa bidez informazioa jaso eta gero liburua idaztea izaten da nire lan metodologia. Eta holaxe hasi nintzen. Klubeko kide izan ziren lagun batzuek elka-

rizketatu nituen Klubaren historiaren berri jasotzeko, baina berehala konturatu nintzen modu horretan ez nuela ezer garbirik aterako. Detalle txikienetan ere kontraesanak zeuden; bata gauza bat esaten zidan, eta besteak hankaz gora jartzen zuten lehenengoak esandakoa. Adibide bat jartzearen, batzuk esaten zidaten C.D. Elgoibarren aurretik Fleje izeneko talde bat egon zela, eta handik sortu zela gero C.D. Elgoibar. Beste batzuk, ordea, Fleje taldea C.D. Elgoibarren filiala izan zela esaten zidaten. Sorreran bertan kontraesanak zeuden. Beste metodologia bat behar nuela pentsatu nuen.

◆ Metodologiaz aldatzea erabaki zenuen orduan. Zein izan zen hurrengo pausoa?

Partidetako kronikak jaso eta haien berri ematea bururatu zitzaidan. C.D. Elgoibar 1917an sortu zuten, baina aurrez ere jokatzen zituzten partidak, federatu gabe egon arren. Hortaz, 1914. urteko egunkariak begiratzen hasi nintzen, liburutegi eta artxiboetan. Lau edo bost egunkari begiratzen nituen egunero, eta C.D. Elgoibari buruz zetorren informazio guztia biltzen nuen. *El pueblo vasco, Guipuzcoa, Unidad, Diario Vasco, La voz de España, Hoja del lunes* eta beste hainbat

egunkaritan aurkitu dut informazioa. Ordu pila bat pasatu nituen lan horretan, eta konturatu nintzenerako informazio pila bat neukan; gehiegi. Informazio asko kanpoan utzi behar izan dut, bestela entziklopedia bat irtengo zitzaidan.

◆ Informazio guzti horretan aurkitu al zenuen bitxia egin zitzaizun konturik?

Bai, bitxikeria asko agertu zaizkit. Esate baterako, C.D. Elgoibarrek borroka greko-erromanoan aritzen zen taldea zeukala, eta Gipuzkoako txapeldunak izatera iritsi zirela. Horrelako gauza pila bat zeuden, eta iruditzen zitzaidan informazio hori guztia ezin nuela alboratu. C.D. Elgoibar izan da Elgoibarko kirol guztien oinarria, hau da, kirol espezialitate guztiak C.D. Elgoibarretik sortu dira: pilota, txirrindularitza, eskubaloia, mendizaletasuna... Eup mendi taldea bera C.D. Elgoibartik sortu zen. 1943an debekatu egin zieten Eup izena erabiltzea, eta Morkaiko izena hartu zuen. Eta emakumezkoen talde bat ere bazegoen, mendian asko ibiltzen zena. Gipuzkoako inbidia zen talde hura! Aurkitu dudak beste detaile kuriosoa bat izan da Manu Kondek pare bat partidatan arbitro lanak egin behar izan zituela, arbitro batekin arazoak eduki zituztelako. Eta gogoratzea da baita ere S.D. Eibarren lehen futbol zelaia lerun izan zela. Gauza pila bat aurkitu ditut, eta horrelakoak liburuan ez sartzea krimenairuditu zait.

◆ Nola egituratu duzu informazio guzti hori liburu batean?

Asko kostatu zait informazioari forma ematea. Berez iazko urte amaierarako bukatu behar nuen liburua, baina ezinezkoa egin zitzaidan. Abendurako informazio bilketa amaituta neukan, baina gero dena idatzi eta errebasatu egin behar da. Uste baino lan handiagoa izan da, eta tartean gainera, emazteari ebakuntza larria egin behar izan zioten eta ezin izan nion nahi beste denbora eskaini liburuari. Kirol modalitatearen arabera sailkatzen hasi nintzen lehenengo informazioa, baina ez zen modurik onena. Azkenean denboraldia egituratu dut liburua. Futbol denboral-

dia irailean hasten da eta ekainean bukatu. Denboraldi bakoitzaren barruan jokatutako partida guztien emaitzak eta kronikak bildu ditut. Horrez gain, denboraldian zehar C.D. Elgoibarrek parte hartzen zuen beste kirol espezialitateen berri ere eman dut. Ehun urte, ehun denboraldi, eta kapitulu bakoitzak hamar bat orrialde izango ditu. Lehenengo Mailan jokatzera iritsi diren futbolarietako eskaintako atal bat ere badago. Mila orrialdetik gora eta 800 bat ilustrazio izango ditu liburuak, eta hori informazio pila bat kanpoan utzi dudala. Jendeak sarritan galdetzen zidan kalean ia liburu noizko bukatuko nuen, eta zenbat orrialde izango zituen. Erantzuna entzutean eskuak burura eramane zituen batek baino gehiagok, baina ikaragarria da C.D. Elgoibarri buruzko zenbat informazio dagoen egunkari zaharretan. Hori bai, klubak ez du inongo informaziorik gorde. Uholdeetan urak harrapatu zuen C.D. Elgoibarrek Maalan zeukan lokala eta badirudi han galdu zela zeukaten informazio guztia.

“Mila orritik gora eta 800 bat ilustrazio izango ditu liburuak”

◆ Lan mardula eta osoa egin duzu. Gustura geratu zara emaitzarekin?

Bai, bi urteko lana izan da, baina liburu txukuna geratu da. Idazkera nahiko monotonoa izan da, gaia futbola izanik hizkuntza bera delako kronika guztietan eta kronika asko oso antzerakoak zirelako. Lan handia izan da, baina orain nahi duenak eskura izango du C.D. Elgoibarrek ehun urteotan jokatu dituen partida guztien gaineko informazioa. Gehiena Haundiri buruzkoa da, baina denboraldiren baten beste talderen batek aipatzeko zerbait lotu badu, hori ere jaso dut. Eduki asko dago, baina irakurtzeko modu erra-

zean idatzi dudala iruditzen zait. Liburu interesgarria da, eta espero dut herritarren gustukoa izatea.

◆ Nondik datorkizu idazteko pasioa?

Aspalditik dut gustuko. Lau neba-arreben artean zaharrena naiz ni, eta ó urte egin gabe nituela, gure aita hil egin zen. Nik ikasten jarraitu nuen, eta musika ikasten hasi nintzen. Nire ilusioa akordeoia josten ikastea zen, baina ama alargun eta lau umerekin geratu zenez, ezin izan nuen. Gero beka bat eskuratu nuen Xixongo unibertsitatean Maestria Industrialak ikasteko, baina lanean hastea erabaki nuen, amari laguntzeko. Luis eta Mariaren Alabak Kongregazioko parte nintzen eta han hasi ginen Euskal Herriko gai desberdinak ikasten: lanak egiten genituen gainerakoei aurkezteko, mendi irteerak egiten genituen... Han konturatu nintzen idaztea gustuko nuela, eta ordutik, hogeitaz liburutik gora idatzi ditut. Niri etnografiarekin lotutako gaiak gustatzen zaizkit, bereziki. Elgoibarri buruz idazten dut gehienbat, baina Gipuzkoako hainbat gai ere landu izan ditut, errotak esate baterako. Arantza bat daukat: euskaraz idazteko gai ez izatea. Euskaraz hitz egiteko moldatzen naiz eta ulertu ere egiten dut, baina ez naiz liburuak euskaraz idazteko gai. C.D. Elgoibarren liburua ere gaztelerez idatzi dut eta Ane Astiazaranek euskaratu du. Pena handia daukat, umetan nire hizkuntza euskara zelako. Nire aitona-amonek ez zekiten gaztelerez. Francoren garaian amona autobusetik atera zuten Donostian, euskaraz hitz egiteagatik! Baina guk galdu egin genuen euskara. Seme-alabak behintzat ikastolara eramane genituen eta haiek ondo dakite euskaraz.

◆ Hemendik aurrera, zein proiektu dituzu eskuartean?

Nire autobiografia idazten ari naiz, bilobei oparitzeko. Bost biloba ditut, eta bakoitzarentzako modu pertsonalizatuan oparitzeko diet. Aitona zein izan den ezagutaraztea da nire asmoa. Hiru seme-alaba eta bost biloba daukat, eta orain haiekin gozatzen dut. Batek partida daukala, bestea kalejiran doala... haiek ikusteak gustatzen zait.

E K I N T Z A
K U L T U R A L A
E R R E B A L E N



E I B A R

ANTZERKIA: IZOZTATUKO HAIZEA BEZALA (TANTTAKA)



ABENDUAK 7
20:30
Coliseo Antzokia

Ekoizpen honekin Tanttakak abusuari buruzko trilogia ixten du. Kasu honetan, farmazio batean ematen den tiroketak munduak txarto tratatutako hiru gazteren topaketa ahalbidetzen du. Uste duguna baina ohikoagoa den errealitate bat kontatzeko thriller bat...

GIPUZKOAN GAZTE-TOUR: PARRAPÁS + BAGO!AZ + TWIN MELODY + DJ TXURRU



G + GAZTE
#gipuzkoangazte

ABENDUAK 15
18:00
Astelena Frontoia

Egitaraua

18:00: Parrapas taldea
19:00: Bago!az-eko partaideak
20:00: Twin Melody
21:00: DJ Txurru

5€

ZINE EMANALDIAK COLISEOAN



ABENDU
OSOAN ZEHAR
Coliseo Antzokia

- La sociedad literaria y el pastel piel de patata
- Superlópez
- El Grinch
- El fotógrafo de Mauthausen
- Ralph rompe internet
... ETA GEHIAGO

DESKONTUAK
Coliseoaren laguntzat

%30





1946koa da argazkia, Antonio Arrillaga sendagilea Morkaikoko presidente zela Morun buzoia jarri zutenekoa.



Morkaiko, mendirako zubia

75. urtemuga du Morkaiko Mendizale Elkartek eta ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Azaroaren 15etik elkartearen historia ezagutzeko aukera izan da Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta gaur, dokumentala estreinatuko dute Herriko Antzokian, 20:00etan. 1943tik gaur arte Morkaikok izan dituen mugarr nagusiak jaso dituzte dokumentalean, bazkide izan direnen eta direnen ahotan.

- AINARA ARGOITIA -

Zer ez da aldatu 75 urtean! Mendiak aldatu dira, eta mendizaletasuna bera ere bai. Galdetu bestela herriko mendizaleen erreferente izan den elkarteko hasierako bazkide haiei. Edo errepasatu bestela aurreragokoen idatziak, Morkaiko sortu aurretik ere bazirelako, jakina, mendizaleak Elgoibarren, eta bazelako mendizaletasuna hauspotu zuen talderik ere. Gauza jakina da, adibidez, Club Deportivo Elgoibarrek berak Mendi Saila izan zuela, eta han ibilitako asko, Pio Etura, Teodoro Larreategi eta abar, Morkaiko sortu zuten taldean ere agertzen direla gero. Antton Iturriza mendi gidari eta kazetariak ere jasota dauka Club Deportivo Mendi Sailaren berri, Euskal Herriko Mendi Federazioaren sorrerari buruzko idatzietan. Federazioa sortzeko bilere-tako aktetan jasota dago, adibidez, emakumeak bazkide izan ote zitezkeen galdetu zutela elgoibartarrek. 30eko hamarkada hartan, mendi-irteerak ere antolatzen zituen talde hark, Pol-Polera, Ondarrura eta inguruotako mendietara. Gerra aurreko kontuak ziren horiek, baina. Izan ere, 1936ko estatu golpe militarrek erdi galduan laga zuen dena, baita mendizaletasuna ere. Edozelan

ere, Elgoibarko Club Deportivo izan zuen Mendi Sail hura izan zen Morkaikoren hazia.

Gerora, beste herri askotan gertatu zen bezala, futbola indar handia hartzen hasi zen beste kirolen kaltetan, eta klubetan ere igarri zen horren eragina, baita Club Deportivo Elgoibarren ere. Mendi Saila ia ezerezean gelditu zen, eta haren bueltan zebiltzanek premiazko ikusi zuten herrian mendizale elkarte autonomo bat sortzea. Halaxe sortu zuen EUP taldea Lorenzo Garate eta Joxe Larreategi buru zituen mendizale kuadrilla batek, 1940an. Mendi tontorrera iristean eupada handia bota ohi zuten mendizaleek, eta eupada huraxe izan zuten gogoan taldeari izena jartzeko ere. Gerra ondorengo urte haietan, baina, konnotazio politikoak ikusi zizkion izen hari Espainiako Mendi Federazioak, eta atzera bota zuen elgoibartarren eskaera, aukeratutako izena "iraultzailea" eta "araz kanpokoa" zela ebaztita. Gerra amaitua zen ordurako, baina ez haren itzala, eta derrigorrean, izena aldatu behar izan zuten mendizaleek. Morkaiko jartzea adostu zuten, hala Federazioa izendapena atzera botatzeko aitzakia bila



hasiz gero, zera alegatzea izango zuten mendizaleek aho txikiarekin: 1936ko irailaren 27an errepublika zaleek Morkaikon hil zuten Alfontso Borboiko eta Orleanskoaren omenez jarri ziotela Morkaiko izena taldeari [Nafarroako erreketeeekin ibili zen gerran Antso Borboikoa, Espainiako errege Felipe Borboikoaren familia-koa]. Pio Etura mendizale amorratua izendatu zuten elkarteko presidente, baina agiritan, presidentea Eduardo Agirre *Errezabal* gerrako mutilatua zela jaso zuten, agintariek ez zezaten Eturaren abertzaletasuna elkartea legezatu gabe uzteko aitzakiazat erabili.

Ezer ez zen erraza garai haietan, baina gustuko lekuan maldarik ez da izaten, ezta mendian ere, eta makina bat orrialde idatzi zituzten lagun haiek Morkaikoren historian. 1944an, esaterako, Arnoko aterpea eraiki zuten eta lehenengo logotipoa ere diseinatu zuten Pepe Arrillagak. 1947an, berriz, Hiru-iturriko iturria eraiki zuten Idorben, Irunbaerri-Berri baserriaren sailtan. Ez zuten gaurko oinetako, arropa eta materialik, ezta gaur beste erraztasun ere batetik bestera ibiltzeko eta gauzak garraiatzeko, baina, trabak traba, makina bat irteera egin zituzten inguruko mendietara. Ibili haietan sendotu zen talde-harremana, mendizaleen balore nagusienetakoa, baina mendirako zaletasun hark beste gauza batzuetarako bidea ere eman zuen: euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna indartzeko, besteak beste.

Euskaltzaletasuna

“Mendian, erdaldunek ere, hasierako agurra behintzat euskaraz esaten zuten beti: Egun on”, gogoratu du Asensio Otegi, 1962-1968. urteen artean Morkaikoko presidente izandakoak, eta elkarrearen hasierako etapa hartatik bizi den ordezkari bakarrenetakoa. Abertzaletasunarekin lotuta ere baditu oroitzapen bat baino gehiago gordeta Otegi, urte berri eguneko bat kasu. Urtarrilaren 1ean Morkaiko mendira igotzeko ohitura hartu zuten elgoibarko mendizaleek. Han, jaiotza jarri ohi zuten gurutze ondoan, eta gero, Aiastiako bentara jaitsi ohi ziren salda beroa hartu eta txorizo-muturra jatera. Urte berri egun batez, baina, Otegi presidente zela, Morkaikora igo eta ikurrina handi bat topatu zuten gurutzetik zintzilik. Eta estuasunak hartu zuten presidentea, garaiak ere halakoxeak zirelako. “Alkateari deitu nion, Angel Ajobitari, eta ez kezkatzeko esan zidan hark, bidaliko zuela udaltzainen bat. Bi guardia zibil eta udaltzain bat bidali zituen. Eta Bartolori, udaltzainari, bururatu zitzaion Aiastiara jaitsi, norbaiti eskopeta bat kendu eta haretxekin kentzea ikurrina, soka tiroka etenda. Abadeak kargu hartu zidan gero: ea nola zitekeen eurek kostata eskegitako ikurrina tiroka botatzea!”. Beste behin joan ziren Morkaikokoak Balmasedara eta menditik bueltan gelditu zituzten lau-bost guardia zibilek Balmasedako plazan. “Egun berean Billboko mendizale talde bat ere han zebilen, eta itxuraz, behar ez zenen bat egin zuten mendian. Haiek beharrean, baina, geu harrapatu gintuzten poliziek plazara iristean. Erakutsi nizkien baimen-jira denak, orduan mendira ere Gipuzkoako Gobernadore Zibilar baimena eskatuta joaten ginelako, eta laga gintuzten libre.

Biharamunean, baina, koarteleatik deitu zidaten, hara agertzeko esanez. Hura zen beldurra! Ikaratuta joan nintzen sarjento kakanarro haren aurrera eta erakutsi nizkion agiri denak. *‘Esto le ha salbado a usted el pelo’* esan zidan paperak eskuan hartuta”.

Billabonakoa da sortzez Otegi, eta 28 bat urterekin Sigmaro lanera etorri zenean izan zuen lehen harremana mendiarekin eta Morkaikorekin, soldadutzan lagun egindako Jose Maria Ipiña elgoibartarraren bidez. “Ordura arte mendia zer zen ere ez nekien; Ipiñaren lagun taldearekin hasi nintzen mendira joaten. Mendi-goizale peto-petook ziren eta haietako batzuk, Ipiña bera, Pako *Sevitas* lankidea eta beste batzuk, Morkaikoko zuzendaritzan zuden”, dio. Halaxe egin zen bazkide. “Urtean pezeta bat ordaintzen genuen bazkide izateko guk [18 urtez azpikoek, bi erreal] eta abarketak eta *mil rayas* prakak jantzita joaten ginen mendira, gaur besteko preparatiborik gabe. Udaberri-uda partean egiten genituen irteera denak, sanmigelak bitartean, ez geneukalako gaur beste baliabide neguan mendira joateko. Pako *Sevitasek* [Pako Iriondo] animatu ninduen gero zuzendaritzakide izatera, bera presidente izendatu zuten urtean, 1953an”.

Otegiaren agintaldian eskuratu zuen Morkaikok gaur duen lokala. Ordura arte, Kondetarren tabernako jangelan batzen ziren. “Asko zor dio Morkaikok Kondetarrei, asko. Guk ez genuen pagatzen ez telefonorik, ez argirik, ez lokalik eta ez ezer, eta sekula aurpegi txarrik ez ziguten jarri, lokalera sartzeko mostradore atzetik sartu eta sukaldea gurutzatu behar bagenuen ere. Goian ugazabak bizi ziren, baina, eta haiek puntapai bat sartzen ere ez ziguten lagatzen. Beti geu kontrolatzen! Geugatik, epaitegira ere eraman zituzten Kondetarrak eta orduan erabaki genuen lokala erostea. 1963a zen”. Eibartar bati erosi zioten lokala, 30.000 pezetatan. Dirua lortzeko, bazkide-kuota igo eta bonoak atera zituzten eta bazkideak eurak aritu ziren Errosario kaleko lokala berritzen, Felipe Gabiola kontratistaren agindutara.

Mendizaleetasunaren loratzea

Mendizaleetasunaren loratzearen urteak izan ziren 50 eta 60ko hamarkadetakoa. Morkaikon bertan ere 1.000 bat bazkide baziren eta indar horrekin egiteko askori heldu zioten: Hiru



Asensio Otegi, 1962tik 1968ra izan zen Morkaikoko presidente.



Morkaikok Sargoateko iturria berri zueneko argazkia.

iturriko iturria hobetu zuten (1954) eta Sargoatekoa inauguratu (1959); Idorben mahaiak jarri zituzten gero, elgoibartarrek aisialdian mendiaz goza zezaten; ibilaldi neurtuak, mendizaleentzako urteroko txapelketak, formazio tailerrak eta hitzaldi eta erakusketak ere antolatu zituzten eta goi mendietara irteerak antolatzen ere hasi ziren, urtean hiruzpalau. Europako mendietara egin zuten aurreneko irteera handia, 1956an, eta 28 lagunek eman zuten izena. Gerora beste askotan izango zuten moduan, Juan San Martín eibartarra izan zuten orduko hartan gidari, eta Lambrión eta Peña Vieja gailurrak egin zituzten. Gero etorri ziren Piriniotako gailurren konkistak. Balaitus, Gran Facha... Elurretan, praka motzekin eta belaunera arteko esporekin ageri dira mendizale gizonezkoak orduko argazkietan, eta emakumeak, praka gonetan. Bartzelonatik ekartzen zituzten mendirako arropak sasoi hartan; bazkideek katalogotik eskatu eta Morkaikok ekarri. "Gerago, Jose Mari Ansola elektrizistak oinetako denda zabaldu zuten San Bartolome kalean eta hantxe erosi genituen mendirako aurreneko botak", oroitu du Otegi.

Hazi eta hazi ari zen Morkaiko eta elkarteak oihartzun handia hartu zuten inguruko herrietan ere. 1.300 bazkide baziren 70eko hamarkada hasieran, eta kanpoko herrietako bazkideak ere bazeuden tartean. Mendi-irteerez gain bestelako txangoak ere antolatu zituzten, baita atzerrira ere. 1972an, esaterako, Suitzara joan ziren 30 bat lagun eta haietako zazpi lagunek Mont Blanc mendia egin zuten. Esperientzia haren ondotik beste bi irteera ere egin ziren Chamounixera, Mont Blanc mendira, 1977an eta 1980an.

80ko hamarkada

Ezinegon politiko handiko garaiak ziren eta Morkaikoko zuzendaritzan igarri zen horren eragina. Gero eta zailagoa zen zuzendaritzarako jendea ingururatzea; eta zer esanik ez presidentetzarako. Jende asko politikan militatzen hasi zen, eta el-

kartearen bueltan lanerako prest zegoen jendea egon bazegoen arren, inork ez zuen presidente izan nahi. Ekonomikoki ere ez zuen Morkaikok garairik gozoena bizi. Egoera horretan, 1982. urtean, kudeaketa talde bat osatu zuten hainbat lagunek, elkarteak hondoa jo ez zezan. Eta zuzendu ere egin zuten elkartearen norabidea. Defizitari buelta eman eta irabaziekin utzi zuten elkarte batzorde horrek, eta tarte horretan, munduko mendikate garrantzitsuetara iritsi ziren mendizaleak Morkaikoren babesean. Lehen 8.000koa ere iritsi zen, 1993an. Pablo Barrenetxeak eta Aitor Esnaolak Nanga Parbat mendia igo zuten. Mendi garaietarako irteerak prestakuntza beharra ere ekarri zuten eta eskaladan trebatzeko ikastaroak ere antolatu zituzten. 2000. urte bueltan beste gozaldi bat bizi izan zuten Morkaikok. Autobus bat baino gehiago ere betetzen zituzten hara-honako irteeretan eta giro polita sortzen zen halakoetan.

Gero eta jende gehiago zebilen mendian, baina gertatu zen aurreikusi zitekeena. Dagoeneko, mendizaleek ez zuten Morkaikoren beharrik mendira joateko. Teknologia eskura zuten, materiala ere bai, zer esanik ez informazioa, eta, jakina, mendi irteeretarako izenemateak izugarri jaitsi ziren. "Elgoibarko Itzulira eta Karakateko Igoera etortzen zen jendea, baina elkarteak antolatzen zituen gainerako ekintzetara apenas, eta horregatik, 2010eko azaroan hausnarketa prozesu bat abiatu genuen, elkarteak garai eta behar berrietara egokitzeko", oroitu du Aitzol Arriola egungo zuzendaritzakideak.

Azaolako prozesua

Azaola baserrian egin zuten gogoeta bilera hori Morkaikok eta 42 bazkide elkartu ziren. Diagnostikoa garbia zen: herritarrek elkarte itxia ikusten zuten Morkaiko; interes ezberdinak zituzten bazkideek eta haien erantzuteko bidea asmatu behar zen. Ordu arte elkartearen nukleotik, zuzendaritzatik, zuzentzen zuten dena, eta ez zen sistemarik operatiboena ere. Halaxe, azpitaldeak sortu



zituzten, jendeak bere interesen arabera ekintzak sortu zitzaizkien, Morkaikok eskaintzen zuen plataformaren barruan. Azaolaz geroztik, beraz, "Morkaiko beste bat da". Sei bat lagunek osatzen dute Morkaikoren nukleoa, zuzendaritza-taldea, eta mendizale elkarte baten ohiko funtzionamendua- ren ardura dute euren gain. "Administrazio lan batzuk kanpora atera genituen eta aholkularitza enpresa batek egiten dizkigu. Lan burokratikoa da hori, guri energia eta denbora asko kentzen ziguna.

Baina bestelako administrazio kontuen eta Federazioarekin, Udalarekin eta bazkideekin izan beharreko harremanen ardura geuk dugu. Hori, eta baita Karakateko Igoera eta Morkaikoren Eguna antolatzeko ere", zehaztu du. Gero, esan bezala, azpialdeak ditu Morkaikok. Bi-hiruna bazkidek osatzen dute talde horietako bakoitza eta nor bere gustuko ekintzak antolatzen ditu, nor bere ahale eta indarren arabera: haurrentzako irteerak, nagusientzako ekintzak, ohiko mendi irteerak, BTT martxak, mendi segurtasunari buruzko ikastaroak, mendi eskia, espeleologia, raid taldea, haurrentzako irteerak, natur eta ondare taldea eta emanaldietarako lantaldea. "Lanerako konpromisoa duen jendea inguratzea kostatzen zaigu, gainerako elkarteei bezala. Gai jakin baten inguruan interesa duenak derrigorrean ari den batek baino ilusio handiagoz



Elgoibarko mendi itzuliko irudia.

antolatzen eta sortzen ditu ekintzak, baina, eta hori da orain sustatzen duguna. Denok dena egin beharrean eta denok erre, ardurak banatu eta bakoitzak gustuko duen horretan duen onena ematea. Ekintzak Morkaikoren aseguru-babesean egiten dituzte, finantziarioaren parte bat ere Morkaikok hartzen du bere gain eta diru-laguntza eskaerak ere elkarrearen izenean egiten ditugu. Eta hori dena lotzeko, urtean bi-hiru batzar egiten ditugu elkarrekin. Teknologia berriek gauza txar asko izango dituzte, baina guri oso lagungarri izan zaizkigu". Badirudi asmatu dutela. 75 urte bete berrian eta 1.350 bazkideekin, sendotuta ageri da elkarre- tea, beste urte asko betetzeko gertu. Bidea zein den badakite: transmisioa, haur eta gazteak mendira lotzeko, eta herritarren behar eta eskarietara egokitzen jakitea.

KARAKATEKO IGOERA.....

lñaki Konde eta haren hiru ikasleren arteko desafio batekin hasi zen dena. Kalegoen plazako frontoitik Karakateko buzoira zeinek azkarrago igo erronka jo zioten ikasleek Konderi; hiru baten kontra egin behar zuten: ikasleek erreleboka, eta Kondek bakarka. Orduan hartu zen lehenengoz denbora ofiziala eta apustu hark oihartzun handia izan zuen herrian. Konde gailendu zen orduko hartan. Berehala hasi zen jendea bere kabuz saiatzen, eta jendea zein berotuta zebilen ikusita, Karakateko Igoera antolatzea erabaki zuen Urgazik (1994). Eguna ere zehaztu zuten: Behobia-Donostia jokatu ondorengo zapatuan izango zen beti, garai horretan jendea forman egon ohi delako. Bi urtean antolatu zuen Urgazik berak bakarrik eta hirugarrenerako, Morkaikora jo zuen lñaki Kondek berak, antolakuntza parte hartuko ote zuten galdezka, ordurako mendiko lasterketen puria hasia zegoelako bazterretan. Eta onartu zuen Morkaikok. Hurrengo lau-bost urtean elkarrekin antolatu zuten Urgazik eta Morkaikok Karakateko Igoera, eta geroztik, Morkaikok hartzen du antolakuntza lanen ardura, oso-osoan. Gaur, entzute handiko lasterketa da Karakatekoa eta jende asko etortzen da kanpotik ere.

MORKAIKOREN EGUNA.....

Morkaikoren Eguna maiatzeko bigarren edo hirugarren zapatuan izan ohi da, eta egun horrek Elgoibarko Itzulia, Elgoibarko Itzulitxo eta Finalista Eguna uztartzen ditu [Guztira, 650 lagun inguru batu ohi dira]. Finalista Eguna 1957an hasi zen Morkaiko ospatzen, Idoroben. Ospakizun horretan ehun mendi igotzea lortu zutenei dominak banatzen zizkieten. Ehun Mendien lehiaketa Euskal Herriko Mendizale Federazioak sortu zuen 50eko hamarkada bukaeran. Egin beharrekoa zera zen: 5-10 urteko epean 100 mendi igotzea. Gaur, plazan banatzen dituzte Finalista Eguneko dominak. Elgoibarko Itzulia, berriz, 39 kilometroko ibilaldi neurtua da gaur. 1927. urteko abuztuaren 7an egin zen lehenengoz, eta itxuraz, herriko hainbat kuadrillaren arteko eztabaidak izan ziren proba hau antolatzeko arrazoia. Cafe Amistad tabernan hasi zen dena: Elgoibarko itzulia mendiz 12 orduan egitea ezinezkoa zela bota zuten batzuek eta baietz erantzun besteek. Hala, eztabaida haren lekuko zen alkateak, Antonio Arrillagak, proba antolatzea proposatu zion Elgoibarko Club Deportivo-ri. Eta onartu zuen hark. Andres Espinosa mendizalea gailendu zen estreinako itzuli hartan. 8:06:00ko denbora egin zuen Espinosak, eta Teodoro Barrenetxea izan zen lehen elgoibartarra, 8:44:00ko denborarekin. Geroztik egin diren Elgoibarko Itzuli denak ibilaldi neurtuak izan dira.

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
lendera@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

**FONTANERIA Ibámar**
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Oid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**ONGI Iturgintza**

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxe: 943 254 523
ongi@ongiiturgintza.com
www.ongiiturgintza.com

TELLABIDE
ITURGINTZA



Azpilgoeta, 7 behe - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzaleftabide@hotmail.com

**SANTANA**
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROSZTEGIAK

**Aroztegia ASIMA**
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



**BIENA S.L.**
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@bicna.eus



**IMAR**
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



**iraolagoitia**
aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20650 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urzuzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urazandi, 22 behe - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.

LEIHOAK

**LODOSO**
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

**B IOK**
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

**Hércules**



658 710 898

Gremioen
gida

'Poza' album ilustratua argitaratu du Uxue Alberdik



Uxue Alberdik *Poza* album ilustratua argitaratu du Elkar argitaletxearekin. Eider Eibar ilustratzailearekin batera osatu du albuma, eta asteazkenean aurkeztu zuen Donostian. Bertsotan idatzitako albuma da *Poza*, pozari kanta egiten diona. Liburuarekin batera, kantua eta klipa ere zabaldu dituzte. Iban Urizar musikari elgoibartarrak konposatu du albumean oinarritutako kanta, liburuaren osagarri eta gozagarri dena. Kantuaren grabazioan, baina, beste hainbat musikarik ere parte hartu dute, tartean bi elgoibartarrek: Naia Membrillerak eta Aitor Novak. Herriko hiru musikariez gain, Keu Agirretxea eta Mariano Hurtado ere aritu dira. *Poza* albumean poz diferenteak topa daitezkeela azaldu zuen Alberdik. "Xomorro bakoitzeko poz bana: iñurri poza, erleen poza, matxinsalto poza, kilkerren poza...". Liburuak, kontatzeko baino kantatzeko egokiagoa izan daitekeela zehaztu zuen.

Saxofoi-jotzaile gazteen Hamaikasax lehiaketa jokatu da asteburuan

Saxofoi-jotzaile gazteen Hamaikasax nazioarteko lehiaketa jokatu da asteburuan Elgoibarko Musika Eskolan. Lehiaketa honen bidez, musikari gazteei saxofoiaren munduan jarraitzeko pizgarri bat eskaini nahi diete antolatzaileek, musikariak ondo presta daitezzen, hobetzen saia daitezzen eta esfortzu guzti horren emaitza ikus dezaten. Era berean, baina, goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleei bultzada ere eman nahi diete eta baita bakarka saxofoia jotzeko trebetasunak eskaini ere txikienei. Bi mailatan banatuko dituzte parte hartzaileak. B kategorian, 12 urtera arteko musikariak lehiatuko dira (2006an jaiotakoak barne), eta A kategorian, 16 urtera artekoak (2002an jaiotakoak barne). A kategoriako kanporaketak zapatuan jokatu dira, 12:30ean hasita, eta B kategoriakoak, 17:30ean. Finalak domekan jokatu dira, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Lehiaketan hiru elgoibartar lehiatuko dira: Miren Serrano, Ander Aizpurua eta Eneko Gil.



'Argazkilaritza eta sare sozialak' izenburuko hitzaldia gaur, Elgoibarko Gaztelekuan

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak, azaroaren 20ko data balliatuz (Haur eta Nerabeen Nazioarteko Eguna), sensibilizazio-kanpaina bat sortu du lurraldeko haur, nerabe eta gazteei beren zibereskubide eta ziberbetebeharrez ohartarazteko, eta Elgoibarko Udalak ere bat egin du kanpaina horrekin. Horren barruan, hainbat ekintza egin dituzte. Azaroaren 19an eta 20an, esaterako, euren eskubideen gaineko gogoeta egin zuten Ludotekan eta bideo bat ere grabatu zuten. Gaurko, berriz, argazkilaritza eta sare sozialen inguruko tailerra antolatu dute gaurko Elgoibarko Gaztelekuan (18:30). Ion Markel Saez de Uraban argazkilari profesionalak emango du tailerra, eta nerabeek hainbat estrategia landuko dituzte berarekin, ikasteko nola babestu behar dituzten euren eskubideak sare sozialak erabiltzen ari direnean. Horretarako, sakelako telefonoarekin argazkiak ateratzeko teknikak landuko dituzte eta irudiaren erabilera egokiaren inguruko azalpenak ere jasoko dituzte. Bi direlako kanpaina honen helburuak: batetik, prebentzioa eta sensibilizazioa (arrisku-egoerei eta norberak dituen eskubide eta betebeharrei buruz), eta bestetik, gazteak ahalduntzea. Azken batean, sarea ondo erabiltzeko bide-oriak eskainiko dizkie gaur Saez de Urabanek, gauza jakina delako besteen onospena bilatzea dela nerabeazaroaren ezaugarrietako bat, eta bere buruari buruzko irudi jakin bat emateko ahalegin horretan, sarri itxurakerian sartzen direla edo besteei gustatzen zaien hori irudikatzen hasten direla.

Kokoteraino eta Ehun Kilo batuko ditu Sinüosek abenduaren 14an



Kontzertu berezia iragarri du Sinüosek abenduaren 14rako, Kultur Etxeko sotoan (22:30). Kokoteraino eta Ehun Kilo taldeak batuko dituzte, eta iragarpenak ikusmina sortu du herrian, nagusiki Kokoteraino taldearen itzuleragatik. Gitarra eskuan hartu eta lehen akordeak ikasi bezain laster osatu zuten beraien lehen taldea 'Nahitanahiez' gero Kokoteraino izango zirenek. Nahitanahiez izenarekin egin ziren ezagun herriko gazte musikazaleen artean Patxi Zabaleta, Oier Gurrutxaga, Iker Rodriguez eta Gorka Regil; eta halaxe eskaini zituzten beraien estraineko emandialdiak ere. Denbora gutxi iraun zien, baina, lehen bataioak, halaberharrez beste izen bat aukeratu beharra izan zutelako. Garaiko izpiritu errebeldearen isla izan zen izen berria: Kokoteraino. Maketa bat eta Kilometroak 96ko diskorako kantu bat sortu zituzten, eta makina bat emandialdi eskaini. Hogeita bost urte pasatu dira lehen grabazio hartatik, eta mende laurdena behar den bezalaxe ospatzea erabaki dute, elkartu eta 1993. urtean grabatu zuten maketa zuzenean jotzen, alegia.

Ehun Kilok ere joko du abenduaren 14an. Jon Zabala, Jon Iturrino, Jabi Bergara, Kristian Etxabe eta Kamilo Fernandez 1991an elkartu ziren lehen euskal heavy taldeetako bat sortzeko. Maketa bat eta bi disko kaleratu ostean, 1997an desegin zuten taldea. Gaztetxean eman zuten agurkontzertua. Bestalde, Hatortxu Rock jaialdiak gonbidatuta, bira txikia egin zuten 2017an, desegin eta hogeitaz urtera. San Bartolome eta Santa Ana jailetan ere jo zuten.



Nerea Arriola biolin jolea nagusi Triomphe de l'Art nazioarteko lehiaketan

Nerea Arriola biolin jole mendaroarrak lehenengo saria eskuratu du Bruselan jokatu berri den Triomphe de l'Art nazioarteko musika lehiaketan, 15 eta 20 urte arteko biolin joleen sailean. Aste osoz lehiatu da Arriola Bruselan, mundu osoko biolin jole onenekin. 32 biolin jole lehiatu dira bere sailean, asko eta asko asiarrak, haizezko instrumentuetan maila gorena duten herrialdeetakoak. Lehenengo fasera aurkeztutakoetatik, baina, zortzi onenak aukeratu zituzten finalerako eta finalean goia jo zuten mendaroarrak, iaz arte herriko Ameikutz musika eskolako ikasle izan denak [Musikenen dihardu orain musika ikasketak egiten]. Lehiaketan derrigorrezko eta hautazko piezak jo behar izan dituzte, pieza teknikoak, eta Arriola gailendu da, Clement Pimenta frantziarraren aurretik. Sari horrez gain, aipamen berezi bat ere jaso du Arriolak.

Euskarazko produktuen katalogoa banatu du Elgoibarko Udalak eskola-umeen artean

Euskarazko produktuen katalogoa banatu du Elgoibarko Udalak, gurasoentzat eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat ehunka erreferentzia biltzen dituen. Merkatuan dauden produktuen artean aukeraketa bat egin dute, eta berritasuna, egokitasuna eta kalitatea irizpideak kontuan hartuta atal ezberdinetan sailkatu dituzte produktuak. Produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ere zehaztu dute, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa ere egin dute. Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleen artean banatu dute katalogoa, baina Interneten ere badago kontsultagai, www.katalogoa.eus webgunean edota Elgoibarko Udalaren webgunean, Euskara Sailaren atalean. Kanpaina honen bidez, euskararen transmisioan eragin nahi du Udalak, gurasoei euren seme-alabentzat lagungarri izango diren euskarazko produktuen berri emanez. Katalogoa etxean jaso ez duenak herriko liburu-dendetan, Kultur Etxean edota Gotzon Garate Udal Liburutegian ere jaso ahaliko du.

Felix Sanchez Arrazolak Mugertza krosean ateratako argazkia, atletismoko urteko argazki onena izateko finalisten artean

Felix Sanchez Arrazola argazkilari oñatiarrak 2017ko Mugertza krosetako irabazleari, Selemone Barega etiopiarri, Mintxetako helmugan ateratako argazki bat da IAAF Photograph of the Year award argazki lehiaketako lau finalistetako bat. Egileak *Bedeinkapena* izena jarri zion argazkiari, Selemone Barega Elgoibarren lortutako garaipenagatik zeruari eskerrak ematen ageri baita irudian, Mintxetako pistan belaunikatuta. Nazioarteko Atletismo Federazioak urtero antolatzen duen galan jakinaraziko dute zein den urteko atletismoko argazki onena. Monakon izango

Arg.: Felix Sanchez Arrazola



da, abenduaren 4an. Argazkiko protagonista Selemone Barega ere han izango da, aurten nabarmendu diren atleta gazte onenaren saria jasotzeko bost hautagaietako bat baita. Mintxeta Atletismo Taldeko kideak pozik dira argazkilariak lortu duen hautagaitzarekin. "Argazkilariaren eta antolakuntzaren lana adierazten duen dokumentua da finalerako hautatu duten argazkia. Beste behin ere, Elgoibarko krosaren garrantzia argi gelditu da, eta albiste bikaina da 75. urteurrena amaitzear den honetan", adierazi dute.

Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 12tik 18ra jokatuko dute



Abenduaren 12an aurkeztuko dute Elgoibarko 28. Nazioarteko Xake Txapelketa, 12:30ean, udaletxeko pleno aretoan, eta arratsaldean, 17:00etan, jokatuko dute lehen jardunaldia. Pleno aretoan jokatuko dituzte erronda guztiak, bederatziguztiari. Babeslea lortu dute aurtengorako eta ITS Security izena izango du txapelketak. Parte hartuko duten xakelari ia denak lotuta dituzte antolatzaileek: Karina Ambartsumova (Errusia), Michael Oratovsky (Israel), Mikel Huerga (Euskadi), Luis Galego (Portugal), Carlos Suarez (Espainia), Aleksa Strikovic (Serbia), Javier Moreno (Espainia), Nicolo Napoli (Italia), Paul Velten (Frantzia). Hamargarrena euskal xakelari gazte bat izatea nahi dute, eta horren bila dabilta. Era berean, Elgoibarko Xake Taldeak beste bi

xake txapelketa antolatu ditu abendurako. Estreinako ITS Security irekia izango da bat, abenduaren 15ean, Kultur Etxeko sotoan. Bigarrena eskolarteko xake txapelketa izango da, abenduaren 16an, sotoan baita ere.

Ate irekien jardunaldia Udal Kirol Patronatuaren kirol eskaintza ezagutzeko

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak era askotariko kirolak eskaintzen ditu, eta horietako batzuek herritarrei ezagutzera emateko antolatu dute ate irekien jardunaldia, abenduaren 15erako. Besteak beste, erretiratuentzako gimnasia, zumba, spinning eta krosfit moduko kirol modalitateak ezagutu eta probatzeko aukera izango dute ate irekien jardunaldian parte hartzen duten lagunek. Interesatuak abenduaren 10a baino lehen eman behar dute izena, Olaizaga Kiroldegian edo Mintxetan. Parte hartzaileen kopurua mugatua dela ohartarazi dute antolatzaileek, 25 lagun saio bakoitzeko.



Arkaitz eta Leire Egaña Espainiako Ehiza Xehetxapelketan lehiatuko dira Albaceten

Espainiako Ehiza Xehetxapelketako bi finalerdiak jokatu zituzten azaroaren 25ean Ciudad Realeko Campo de Criptana herrian, iparraldeko sektorekoa eta hegoaldekoa. Iparraldekoan hartu zuen parte Arkaitz Egaña Bastidak Euskadiko Ehiza Xehetxapelketan txapelaldunorde izan eta gero. Espainiako finalerdian ere bigarren



postua eskuratu zuen Egañak, bi eper eta hamar untxi ehizatuta. Errioxako ordezkari Ruben Fernandezek irabazi zuen sektorea hiru eper eta 11 untxi ehizatuta. Sektore bakoitzeko lehen zortzi sailkatuek jokatu dute Espainiako Ehiza Xehetxapelketako finala. Albaceteko La Roda herrian jokatu dute finala, abenduaren 8an. Emakumezkoen 6. Espainiako Ehiza Xehetxapelketa ere hartuko du La Rodak. Egungo Euskadiko txapelalduna den Leire Egaña ehiztari elgoibartarrak ere hartuko du parte, Euskadiko Ehiza Federazioa ordezkaturik. Gizonezkoen Espainiako Ehiza Xehetxapelketak 50 urte bete ditu aurten, eta mende erdira ailegatu izana ospatzeko, txapelketa berezia antolatu du Espainiako Ehiza Federazioak, Espainiako Txapelketaren biharamunetarako, abenduaren 9rako. Espainiako Txapelketa irabazi duten ehiztariak lehiatuko dira, eta horien artean izango da Arkaitz Egaña, birritan irabazi baitu txapelketa hori, 2012an eta 2015ean.

Elikagai biletarekin bat egingo dute Sanlok eta C.D. Elgoibarrek

Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeak eta C.D. Elgoibar futbol taldeak bat egingo dute Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren elikagai biletarekin. Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean egingo dute Elgoibarren Gipuzkoako Elikagaien Bankuarentzako janari biletak, baina bi kirol taldeek abenduaren 1ean eta 2an jasoko dituzte elikagaiak. Sanlok *Jokalari bat = kilo bat* egitasmoa jarri du martxan, jokalaria bakoitzak kiloko pakete bat edo litroko ontziren bat eman dezan. Jokalariez gainera beste edonork har dezake parte. Olaizagako harreran ipiniko dituzte elikagaiak lagatzeko kaxak. Esnea, gailetak, azukrea, pardelak, olio kontserbak eta hauts txokolatea behar dituzte bereziki. Era berean, C.D. Elgoibarrek *Jokalari bat, kilo bat* kanpaina antolatu du. Futbol taldeak Mintxetan duen bulegora eraman behar dira elikagaiak.



Gipuzkoako Txapelketako finala galdu egin zuten Arrizabalagak eta Lizarraldeak

Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketako hainbat final jokatu zituzten aurreko asteburuan. Gizonezkoen gomazko paletako lehiak Zarauzko Aritzatalde pilotalekuan jokatu zituzten, nagusien 3., 2. eta 1. mailetako finalak, hain justu ere. Kepa Arrizabalagak eta Gorka Lizarraldeak osatutako lagunak Pilota Eskolako bikotea 2. mailako finalean lehiatu zen. Etxeko palista bikotea izan zuten aurkari, Zabalak eta Azpeitiak osatutakoa. Final orekatua jokatu zuten arren, zarauztarrek 23 eta 25 irabazi zuten partida. Finala galdu izanak lagatuko zapore mingotsa gozatzeko badituzte baina arrazoiak Lizarraldeak eta Arrizabalagak, Gipuzkoako hurrengo txapelketa maila gorenean, Lehen Mailan, jokatu baitute. 22 urtez azpikoen Gipuzkoako Txapelketan parte hartzen diharduen lagunak taldeko bikoteak ere ez zuten zorterik izan eta galdu egin zuten, aurreko



barixakuan, partida bakarrera Ikastolako frontoian jokatu zuten finalaurrekoa. Aranberri azpeitiarrak eta Iker Odria elgoibartarrak osatutako bikoteak 15 eta 25 galdu zuten Alcotaren eta Ponceren aurkako kanporaketa.

LANA.....

Eskaerak

Umeak zaintzeko prest nago. Goizez.
☎ 652 718 719

Adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 615 526 482

Adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 605 598 999

Adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo tabernari laguntzaile moduan arituko nintzateke. ☎ 675 965 130

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. ☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan ere bai. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 612 232 312

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan ere bai. Berehala hasi naiten. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 631 783 541

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 681 310 989

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 626 407 923

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat. ☎ 632 733 573

Pertsona arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxeko langile ere bai. ☎ 679 048 129

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Ospitalean ere bai. ☎ 631 987 624

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Ospitalean ere bai. ☎ 632 013 896

Adinekoak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Esperientzia handia. ☎ 642 636 525

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. ☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 612 222 362

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 648 063 061

Edozein lan egiteko prest nago. ☎ 643 464 072

Lan bila nabil. Geriatriako titulua eta tailer laguntzailearena ditut. Garbiketa lanetan eta adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ 616 441 825

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Interna edo orduka. Garbiketa lanak egiteko ere prest. ☎ 631 891 709

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 653 667 975

Adinekoak zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ 631 145 986

Adinekoak zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Astelehentik ostiralera, egunez. ☎ 632 642 500

ETXEBIZITZAK.....

Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 677 259 560

Etxea hartuko nuke alokairuan, ahal dela, hiru logelatakoa. ☎ 630 410 294

ESKOLA PARTIKULARRAK.....

Klase partikularrak ematen dira. LH eta DBH. biribiltxoko@gmail.com ☎ 630 055 077

DANOBATGROUP
HARTU PARTE DANOBATGRUPen EUSKAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!
 Sertu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi bi gaseko egonaldi bi laguntzat
<https://www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa2018.html>
 *Parta hartzeak adierazten ditu 2018ko abenduak 3

euskara aldean, erabili lanean

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ. KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.

administradores
 Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
 Entidad Pública Administradora de Recursos Humanos

ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean, etxejabe guztiek partaide-kuota bera ordaintzen dute komunitateko gastuetarako. Hala ere, etxebizitzaren erdiak gainerakoekin baino bi aldiz etxe-aurre handiagoa dute. Jakin nahiko nuke etxe-aurrea konpontzeko orduan, individualizazio kontzeptua aplikatu daitekeen gastuak ordaintzeko orduan eta ordaindu beharreko kopurua etxebizitzaren etxe-aurrearen azaleraren arabera kalkulatu, partaide-kuotaren arabera beharrez.

Etxebizitza guztiek zehaztutako koefizientearen arabera ordaindu beharko dute. Zuen kasuan, kontribuzio berdina egin beharko dute denek, koefiziente bera dutelako zehaztuta. Etxe-aurrearen azalera ezberdina izatea, beraz, ezin da salbuespena izan.

Legez jasota dago gastuen individualizaziorako aukera, baina ez zuk aipatzen duzun kasu horretarako. Gastuak individualki neurtu daitezkeen kasuetan bakarrik heldu dakioke aukera horri: ur kontsumoa, argindarra, berogailua... Baina kasu honetan ezin da zuk diozun irizpide hori aintzat hartu, fatxada elementu komuna delako. Eta beraz, etxe-aurrearen mantentze-lanen gastuak etxejabe guztien artean ordaindu behar dira, partaide-kuotaren arabera, salbu eraikinaren agiriaren beste irizpideren bat zehaztuta dagoenetan.

AHOLKUA: Oker handia litzateke etxe-aurrearen mantentze gastuak alde horretara ematen duten etxeekin lotzea. Irizpide hori ez dago legeak gastuen banaketarako ezartzen duen arauetan jasota.

NORFO



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Aimar**, dagoneko 5 urte. Jarraitu beti bezain alai. Familiakoen eta bereziki Liberen partez.




Zorionak zure 11. urtebetetzean, **Beñat!** Muxu asko etxekoekin partez.



Zorionak, **Katutxu**, hilaren 24an, 7 urtetxo. Disfrutatu eguna. Muxu, aitaxo, Nuria eta maite zaitugunon partez.



Zorionak, **Katerina**, familiako guztien partez.



Zorionak, **Poxpolin**, abenduaren 6an 3 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat denon partez.



Zorionak, **Itsaso**, azaroaren 26an 6 urte egin zenuelako. Familiakoen eta bereziki Beñat, Oihane eta Saioaren partez.



Zorionak, **Nahia**, Elgoibartik Bilbora! 18 urte ez direla alferrik pasatzen! Amama, aitxitxa, Maite eta tio.



Mila esker eguneroko irribarre egiteagatik. Gurasoen eta Enairen partez. Zorionak, **Adei!**

IkasGO akademia

- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

667 261 248 (Leire) Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaeigoibar@gmail.com

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

ZURE OSASUN-IKUSMENA GARRANTZITSUA DELAKO
Eskatu ordua eta saihestu arazoak

- Kataratak
- Ikusmen nekatua
- Begi lehorrak
- Enfokatzeko zailtasunak sortutako arazoak
- DMAE

Zure ikusmena zaintzen dugu

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



I. URTEURRENA

Antonio Navo Morgado

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

2017ko azaroaren 29an hil zen, 78 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, domekan, abenduaren 2an, 12:30ean Mendaroko Garagartzako elizan. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

30 BARIKAKUA

17:30 Presoen aldeko Olentzero antolatzeke bilera irekia. Kimetz elkartean.

18:30 Argazkilaritza eta ziberespazioari buruzko tailerra Elgoibarko Gaztelekuan.

19:30 Sebas Etxanizen aldeko elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

1 ZAPATUA

10:00 Gabonetako apaingarrien tailerra. Atxutxiamaikaren lokalean.

12:00-14:00 eta 16:00-20:00 Hamaikasax saxofoi lehiaketa. Musika eskolako auditoriumean.

17:00 Sorpresa, jubilatuen biltokian. Jubilatuen astearen barruan.

2 DOMEKA

11:30 Hildako jubilatuz guztien aldeko meza, San Bartolome parrokian, Jubilatuen Astearen barruan.

9:30-14:00 Hamaikasax saxofoi lehiaketa. Musika eskolako auditoriumean.

10:00 Irrati aktibazio berezia. EILT-GARE irratizaleek antolatuta.

18:30 Eguren orkestrarekin dantzaldia, jubilatuen egoitzan.

3 ASTELEHENA

18:30 Euskaraldia ariketa sozialaren amaiera ekitaldia, Maalako parkean.

4 MARTITZENA

19:00 Musikarientzako bilera. Entseguak egiteko lokal berriak aurkeztuko ditu Udalak. Kultur Etxean.

5 EGUAZTENA

17:30-18:30 Jaiotza lehiaketan izena emateko epea. Parrokiako lokalean (Trenbide kaletik). Lehiaketa hilaren 16an izango da.

10 ASTELEHENA

18:30 Pintura erakusketa: *Shanty*. Shanty Oriaren margo erakusketa, Kultur Etxean.

11 MARTITZENA

19:30 *Logikomitoak* antzezlanaren proiektzioa, Taupadaren 40. urteurreneko ekintzen barruan. Herriko Antzokian, doan.

20:00 Club Deportivo Elgoibarren mendeurreneko liburuaren aurkezpena. Musika Eskolako auditoriumean.

12 EGUAZTENA

12:30 Nazioarteko Xake Txapelketa, udaletzeko pleno aretoan. Hilaren 18ra arte.

18:00 Gurasoentzako tailerra: *Irakurri aurretik, irakurri*. Itziar Zubizarretarekin, Udal Liburutegian.

19:30 2019ko egutegiaren aurkezpena eta sari banaketa. Kultur Etxeko hiztaldi gelan.

13 EGUENA

19:00 Danobat Azpi 2200 irekia. Xake lehiaketa. Kultur Etxeko sotoan. Kirol Patronatuak, Danobatek, Gipuzkoako Xake Federazioak eta Zubi Ondo elkarteak antolatuta.

14 BARIKAKUA

22:30 Kontzertua: Kokoteraino eta Ehun Kilo. Kultur Etxeko sotoan, Sinuosek antolatuta.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Un seductor a la francesa'	'Small foot'	'La buena esposa'	'Bohemian Rhapsody'	'Cascanueces y los cuatro reinos'
1 zapatua, 19:00 / 22:15 2 domeka, 19:00 3 astelehena, 21:30	2 domeka, 16:30	6 eguena, 19:00 7 barixakua, 21:30	8 zapatua, 19:00 / 22:15 9 domeka, 19:00 10 astelehena, 21:30	9 domeka, 16:30

KONTZETIO AZOKA MENDARON

ABENDUAK 8, LARUNBATA

09:30 Barazki eta ganadu azokaren hasiera.

11:00 VIII. Sagardo Lehiaketa

12:00 Mendaroko trikitixa taldearen kalejira.

12:30 Izetako idiek gidatutako gurdian ibiltzeko aukera.

13:00 Tio Teronen Semeak, *Festamentua* obrarekin.

Ondoren, sari banaketak.

18:00 Pilota jaialdia. Emakumeen arteko pilota desafioa, Gipuzkoa Vs. Bizkaia: Miren Larrarte eta Maider Mendizabal / Leire Etxaniz eta Olatz Arrizabalaga. Profesional ohiak: Uriona eta Arrizabalaga / Lizeaga eta Pascual II.

Ondoren, Basatxerri sahieski erreka dastatzeko aukera, Guri 5 erromeria taldearekin.

Bukatzeko, Mendaroko DJ Pius.



I. URTEURRENA

**Asensio
Urbietta Uranga**

2017ko azaroaren 30ean hil zen. Urtemeza abenduaren 2an, domekan, Mendaroko Garagartzako elizan izango da, 12:30ean.

**Lau urtaro paseak dira
joan ziñela gure ondotik,
orain berriz zaintzen gaituzu
goiko zeru zabaletik.
Ez zarenez iñoiz joango
gu denon oroimenetik,
doakizula muxu haundi bat
bihotz-bihotzez Billaletik.**

Etxekoak

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

30 BARIKAKUA	1 ZAPATUA	2 DOMEKA
Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez * Yudego	Egunez * Fernandez
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean * Fernandez	Iluntzean * Fernandez
3 ASTELEHENA	4 MARTITZENA	5 EGUAZTENA
Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea
6 EGUENA	7 BARIKAKUA	8 ZAPATUA
Egunez Barrenetxea	Egunez Garitaonandia	Egunez * Ibañez
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean * Ibañez
9 DOMEKA	10 ASTELEHENA	11 MARTITZENA
Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego
12 EGUAZTENA	13 EGUENA	14 BARIKAKUA
Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar) - 943 254 410



Eire Vila



Jone Olaizola



- Kaixo, nora zoaz?
- Bada, mendikate haren beste aldera noa, eramango nauzu?
- Bai, igo.
- Zer, zu ere bazoaz hemendik?
- Bai, hemen jada ez da apenas ezer geratzen. Herri honetako azken biztanlea naiz.

- Nola zuen zure herriak izena?

- Elgoibar

- Elgoibar? Bai, entzuna dut. Nire birraitonaren lagun bat bertakoa zen; uste dut antzina herri horretan autoentzako piezak egiten zizutela. Badakizu, lehen jende guztiak zuen auto bat; pentsa, lantokietara bakoitza bere autoan joaten omen zen, eta askotan erosketak egiteko autoa hartzen zuten. Errepide honetatik pasatzeko, esaterako, ordaindu egin behar izaten zuten.

- Bai, hala kontatu izan didate, eta ziotenez, ezkerreko zonalde horretan Deba izeneko ibaia igarotzen zen, baina azken urtee-

tako lehorreek ibaia agortu zuten. Hango mendi haiek berde-berdeak ziren, baina onddo baten ondorioz mendiak gaixotu, eta erabat gorritu ziren.

- Ze pena! Asko aldatuko zen orduan hemengo bizimodua...

- Bai, inguru hau dena idortu zen, eta jendeak beste nonbaitera egin zuen alde. Dirudienez, garai batean astero egiten omen zuen euria, eta elurra ere bai tarteka; baina, hura bukatu zen. Orain azken mahasti hauek soilik geratzen dira.

- Elurra esan duzu? Zein hitz bitxia, oso hitz zaharra izango da, ez dut sekula entzun. Bada, ni Bilbokoa naiz; baina, gaur egun Bilbon ezin da bizi; inguruko lantegi batek gaua baino beltzagoa zen kea isuri zuen, eta geroztik, ez dira eguzki-pintzak sartzen. Beste nonbaitera noa. Eta, zuk, badaramazu maletarik, arroparik, sakelako telefonorik?

-Ez, ez daramat ezer.

- Ez duzu ondasunik?

- Bai, Euskara da ene ondasun guztia.

“Eta, zuk, badaramazu maletarik, arroparik, telefonorik?”

BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIAN
Abenduak 27, osteguna
22:00

Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Miren Artetxe
Nerea Ibarzabal
Unai Iturriaga

Gai-jartzailea: Uxue Alberdi

Aurre-salmenta: abenduaren 10etik 21era
11€ (10€ ELgoibarko Izarrako bazkideek)
Elgoibarko Izarran (09:00-14:00 / 16:00-18:30)
943 741 626

Antolatzailea:



Laguntzaileak:





Innovation
that excites



APROBETXATU
WLTP ARAUDI BERRIA ETA
LORTU NISSAN X-TRAIL BAT
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.